
AS.
Junio 2026 Ekaina
musikenews
nº 52 zK.

# AURKIBIDEA


**Iritzia** | Opinión . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 3
**Gure protagonista**: Lucía Marín . . . . 6
**Erasmus** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 11
**Berriak** | Noticias . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 16
**N. A. O. Nuestros Alumnos Opinan**.. 20
**Crazykene**. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 28
**Mediateka** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 31
**Tocata & Fuga** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 34



MUSIKENEWS es una publicación realizada por el alumnado de Musikene

MUSIKENEWS Musikeneko ikasleek egindako argitalpena da

@musikenews

**Irakurtzeko | Léenos**
www.musikene.eus

**Kontaktuan jartzeko | Contáctanos**
musikenews@musikene.eus

**Edita:** Centro Superior de Música del País Vasco, Musikene. A, 2026
ISSN 22545158


# IRITZIA | OPINIÓN

## AAren garaiak: musika-sorkuntzaren paradigma berria

## Tiempos de IA: el nuevo paradigma de la creación musical

La historia de la humanidad puede leerse como una sucesión de revoluciones que han transformado, de manera irreversible, nuestra manera de producir, de pensar y, en última instancia, de crear. La primera revolución industrial mecanizó la fuerza física; la segunda introdujo la electricidad y la producción en masa; y la tercera automatizó los procesos mediante la informática. Hoy asistimos a una cuarta revolución, la de la inteligencia artificial, que por primera vez actúa directamente sobre el conocimiento, el lenguaje y la toma de decisiones. No es exagerado pensar que, por ello, pueda ser la más disruptiva de todas.

### El dilema existencial en el arte

La música, como el conjunto de las disciplinas creativas, atraviesa hoy en día una crisis existencial. La irrupción de la IA nos sitúa ante una pregunta incómoda, casi vertiginosa: ¿qué sentido tiene el acto creativo cuando una máquina es capaz de producir resultados formalmente convincentes, inmediatos y potencialmente infinitos? La cuestión no es nueva. Cada vez que una tecnología ha puesto en crisis la función tradicional del arte, se ha abierto un abismo similar, una suspensión del sentido que obliga a repensarlo todo desde los cimientos.

La historia del arte ofrece un precedente particularmente elocuente. La aparición de la fotografía planteó a la pintura una pregunta que parecía definitiva: ¿qué sentido tenía seguir representando la realidad cuando una máquina podía hacerlo con mayor fidelidad? Lejos de provocar su desaparición, la fotografía obligó a las artes plásticas a replantear su función, liberándolas del mandato mimético y empujándolas hacia la abstracción, la subjetividad y la exploración de nuevos lenguajes. Salvador Dalí llegó a afirmar que la fotografía había “salvado” a la pintura, y reconoció en ella una fuente decisiva de inspiración para lo que él mismo denominó hiperrealismo trascendental. Así, la amenaza tecnológica se transformó, paradójicamente, en motor de renovación.



**El pianista y director es profesor en Musikene.**

FÉLIX ARDANAZ. Gizadiaren historia iraultzen segida gisa irakur daiteke, gure ekoizteko, pentsatzeko eta, azken batean, sortzeko modua modu itzulezinean eraldatu dutenak. Lehen iraultza industrialak indar fisikoa mekanizatu zuen; bigarrenak elektrizitatea eta eskala handiko ekoizpena sartu zituen; eta hirugarrenak prozesuak automatizatu zituen informatikaren bidez. Gaur laugarren iraultza baten lekuko gara, adimen artifizialarena, lehen aldiz zuzenean eragiten baitu ezagutzan, hizkuntzan eta erabakietan. Ez da gehiegikeria pentsatzea, horregatik, guztietan disruptiboena izan daitekeela.

### Dilema existentziala artean

Musikak, sormen-diziplina guztiek bezala, krisi existentziala bizi du gaur egun. AAren agerpenak galdera deseroso baten aurrean jartzen gaitu, ia zorabiozkoa: zein zentzu du sormen-egintzak makina bat emaitza formalki sinesgarriak, berehalakoak eta potentzialki amaigabeak ekoizteko gai denean? Auzia ez da berria. Teknologia

## La IA como herramienta escénica y social

Algo no muy distinto podría estar ocurriendo hoy en el ámbito musical. El concierto clásico se enfrenta desde hace décadas a un problema estructural: encontrar un relevo generacional que garantice su continuidad como acto social. Integrar la inteligencia artificial en la experiencia escénica —por ejemplo, mediante elementos audiovisuales generados y modulados en tiempo real— puede constituir una vía legítima para atraer a un público joven, intensamente vinculado a la tecnología pero en gran medida ajeno a las salas de conciertos. No se trata de una concesión superficial, sino de una reflexión sobre los modos contemporáneos de mediación.

Algunas instituciones de primer nivel ya han comenzado a explorar este territorio. Sirva como ejemplo el proyecto desarrollado por la London Philharmonic Orchestra para el World Economic Forum, en el que un dispositivo visual basado en IA reaccionaba en tiempo real a la intensidad y al tempo de la música de Bach, generando imágenes vinculadas al deshielo de los glaciares. El resultado no pretendía ilustrar la música, sino dialogar con ella desde otro plano sensorial, tendiendo un puente entre tradición y vanguardia.

## Hacia una nueva singularidad interpretativa

En el plano interpretativo, la inteligencia artificial podría producir, además, un efecto inesperadamente saludable. En un contexto en el que la perfección mecánica es fácilmente replicable por una máquina, tocar "correcto" deja de ser un valor diferencial. Quizá ello obligue a los intérpretes a asumir un mayor riesgo artístico y a desarrollar una voz propia, reconocible, incluso incómoda en ocasiones, como la de las grandes figuras del siglo XX: Horowitz, Cortot, Oistraj, Du Pré, o Callas, entre otros muchos. Frente a lo que yo denomino el Global Neutral Style —ese estilo pulido, homogéneo y aséptico, forjado en el ecosistema de los concursos internacionales de las últimas décadas—, la singularidad expresiva podría volver a convertirse en un bien escaso y, precisamente por ello, muy valioso.

Algunas instituciones de primer nivel han empezado a explorar la IA

batek artearen funtzio tradizionala krisian jarri duen bakoitzean, antzeko amildegi bat ireki da, oinarrietatik dena berriro pentsatzera behartzen duen zentzuaren etendura bat.

Artearen historiak aurrekari bereziki adierazgarria eskaintzen du. Argazkiaren agerpenak behin betikoa zirudien galdera bat planteatu zion pinturari: zer zentzu zuen errealitatea irudikatzen jarraitzeak makina batek leialtasun handiagoz egin zezakenean? Desagerrarazi ordez, argazkilaritzak bere funtzioa birplanteatzera behartu zituen arte plastikoak, imitazio-agindutik askatuz eta abstrakziora, subjektibotasunera eta lengoaia berrien esploraziora bultzatuz. Salvador Dalík argazkilaritzak pintura "salbatu" zuela baieztatu zuen, eta berak hiperrealismo transzendentala deitu zuen horretarako inspirazio-iturri erabakigarria ikusi zuen harengan. Horrela, mehatxu teknologikoa, paradoxikoki, berrikuntza eragile bihurtu zen.

## AA Tresna eszeniko eta sozial gisa

Antzeko zerbait gerta liteke gaur egun musika-arloan. Kontzertu klasikoak egiturazko arazo bati aurre egin behar dio duela hamarkada batzuetatik: ekintza sozial gisa jarraipena bermatuko duen belaunaldi-erreleboa aurkitzea. Adimen artifiziala esperientzia eszenikoan integratzea —denbora errealean sortutako eta modulatutako ikus-entzunezko elementuen bidez, esaterako—zilegi izan daiteke teknologiari biziki lotuta dagoen baina kontzertu aretoetatik kanpo bizi den publiko gaztea erakartzeko. Ez da amore-emate azaleko bat, bitartekaritza-modu garaikideei buruzko gogoeta bat baizik.

Lehen mailako erakunde batzuk hasi dira dagoeneko lurralde hori esploratzen. Adibide gisa balio beza London Philharmonic Orchestrak World Economic Forum-erako garatutako proiektuak; bertan, AAn oinarritutako gailu bisual batek denbora errealean erreakzionatzen zuen Bachen musikaren intentsitate eta tempoaren aurrean, glaziarren urtzearekin lotutako irudiak sortuz. Emaitzak ez zuen musika ilustratu nahi, musikarekin beste plano sentsorial batetik hitz egin nahi zuen, tradizioaren eta abangoardiaren arteko zubi bat eraikiz.

Lehen mailako erakunde batzuk hasi dira dagoeneko AA esploratzen



## La frontera de lo humano

Desde el punto de vista creativo, sin embargo, la inteligencia artificial encuentra un límite claro. Puede producir obras estilísticamente plausibles, pero carece de aquello que define el acto de la creación: la necesidad expresiva, el conflicto interior y el riesgo. Confundir imitación con creación es uno de los grandes equívocos de nuestro tiempo. La música no nace de la optimización de modelos, sino de la fricción —a menudo dolorosa— entre tradición, memoria, vivencia personal y subjetividad.

Estos tiempos de IA no deberían ser, por tanto, tiempos de renuncia, sino de lucidez. Como ocurrió con la notación, la imprenta o la grabación sonora, la inteligencia artificial transformará nuestra relación con la música y con el arte en general. El desafío no es tecnológico, sino ético e intelectual: preservar la profundidad de la escucha, la responsabilidad del juicio y la centralidad del ser humano. Porque la música no pertenece al dominio de lo calculable, sino al de lo significativo, a esa zona imprecisa donde emoción, pensamiento y experiencia se confunden. Y ese territorio -al menos por ahora- sigue siendo irrenunciablemente humano.

Los tiempos de IA no deberían ser de renuncia, sino de lucidez



**¿Podrá la I.A. sustituir al músico?**

## Interpretazioan berezitasun berri baterantz

Interpretazio mailan, gainera, adimen artifizialak ezusteko efektu osasungarria eragin lezake. Perfekzio mekanikoa makina batek erraz errepika dezakeen testuinguru batean, "zuzen" jotzeak balio bereizgarria izateari uzten dio. Agian, horrek arrisku artistiko handiagoa hartzera eta ahots propioa, ezaguterraza eta batzuetan deserosoa ere garatzera behartuko ditu inerpretatzaileak, XX. mendeko figura handien antzera (Horowitz, Cortot, Oistraj, Du Pré edo Callas, beste askoren artean). Nik Global Neutral Style deitzen dudanaren aurrean —azken hamarkadetako nazioarteko lehiaketen ekosisteman eraikitako estilo leundu, homogeneo eta aseptikoa—, adierazkortasunaren berezitasuna ondasun urri bihurtu liteke berriro, eta, hain zuzen ere horregatik, oso baliotsu.

## Gizatasunaren muga

Sormenaren ikuspegitik, ordea, adimen artifizialak muga garbia aurkitzen du. Obra estilistikoki sinesgarriak ekoiz ditzake, baina sormen-egintza definitzen duen hori falta du: adierazpen beharra, barne gatazka eta arriskua. Imitazioa eta sorkuntza nahastea gure garaiko gaizki-ulertu handienetako bat da. Musika ez da jaiotzen modeloen optimizaziotik, baizik eta tradizioaren, memoriaren, bizipen pertsonalaren eta subjektibotasunaren arteko frikziotik —sarritan mingarria den frikziotik—.

AAren garai hauek ez lukete, beraz, uko egiteko garaiak izan behar, argitasun garaiak baizik. Notazioarekin, inprentarekin edo soinu-grabazioarekin gertatu zen bezala, adimen artifizialak musikarekin eta artearekin oro har dugun harremana eraldatuko du. Erronka ez da teknologikoa, etikoa eta intelektuala baizik: entzutearen sakontasuna, senaren erantzukizuna eta gizakiaren zentralitatea zaintzea. Izan ere, musika ez dagokio kalkula daitekenari, baizik eta esanguratsua denari, emozioa, pentsamendua eta esperientzia nahasten diren eremu zehaztugabe horri. Eta lurralde horrek —oraingoz behintzat— uko egin ezineko giza eremua izaten jarraitzen du.

AAren garai hauek ez lukete uko egiteko garaiak izan behar, argitasun garaiak baizik



Lucía Marín,
ex alumna de
Musikene-ko ikasle
ohia

Lucía Marín es una las pocas directoras de orquesta del panorama musical español que hay en la actualidad. Formada en Musikene, ha desarrollado una extensa carrera que le ha llevado a dirigir agrupaciones profesionales tanto en su país como a nivel internacional, convirtiéndose en la primera directora española en trabajar con la State Opera South Australia. Lucía ha sido la protagonista de la última Semana Lila de nuestro centro, al que ha acudido para dirigir la *Sinfonía nº 1, Titán* de Mahler y el *Concierto para flauta y orquesta* de J. Ibert.



# "Creo en la música como motor transformador del mundo"

# "Musikan sinesten dut mundua eraldatzeko eragile gisa"

CLAUDIA MANZANO. Lucía Marín gaur egun emakumezko orkestra-zuzendari espainiar gutxietako bat da. Musikenen trebatua, ibilbide oparoa osatu du, bere herrialdeko zein nazioarteko talde profesionalak zuzenduz; State Opera South Australiarekin lan egin duen estatuko lehen emakumea izan da, hain zuzen ere. Lucía gure ikastegiko azken Aste Lilako protagonista izan da: bertara etorri da Mahlerren *1. Sinfonia, Titan* eta J. Iberten *Flauta eta orkestrarako kontzertua* zuzentzera.

**- ¿Por qué decidiste estudiar dirección en Musikene?**

- Porque era la mejor escuela para estudiar dirección de orquesta en el año 2006. Cuando tuve la oportunidad de hacer las pruebas después de haber estudiado mi carrera de piano con Pilar Bilbao en el conservatorio superior de Sevilla, yo ya había realizado un curso de dirección con mi maestro Enrique García Asensio, que impartía la especialidad de dirección en Musikene. En esa época había muy pocos conservatorios que realizasen prácticas, mientras que en Musikene sí había un profesorado de alto nivel, no solo en dirección, sino también en el resto de especialidades y de asignaturas, lo cual me enriqueció enormemente. Mi paso por Musikene fue trascendental y decisivo para convertirme en la directora que soy ahora mismo. Sinceramente pienso que fui una persona muy afortunada de haber tenido unos profesores tan maravillosos y a los que siempre estaré eternamente agradecida.

Podría nombrar, por supuesto, a mi profesor Enrique García Asensio, a Margarita Lorenzo de Reizabal, a Pedro Gandía, a María Eugenia Luc, Isabel Urrutia, a Jose Luis Estellés… todos ellos fueron básicos para mí. Por supuesto, tampoco quiero olvidar a mi tutora de TFE María José Cano, y otros muchos profesores que se portaron con nosotros maravillosamente. Nos abrieron las puertas y nos enseñaron todo lo que sabían para que tuviéramos herramientas para ir hacia delante. Para todos ellos, siempre, mi máxima admiración y gratitud.

**- Zergatik erabaki zenuen Musikenen zuzendaritza ikastea?**

- 2006an orkestra-zuzendaritza ikasteko eskolarik onena zelako. Sevillako goi-mailako kontserbatorioan Pilar Bilbaorekin piano-karrera amaitu ondoren, zuzendaritza ikastaro bat egina nuen Enrique García Asensio nire maisuarekin, eta bera Musikenen ari zen zuzendaritza-espezialitatea ematen. Garai hartan, kontserbatorio oso gutxik eskaintzen zituzten praktikak maila altuko irakasleekin, eta ez zuzendaritzan bakarrik, baita gainerako espezialitate eta ikasgaietan ere; horrek asko aberastu ninduen.

Musikenetik igarotzea transzendentala izan zen, eta erabakigarria gaur egun naizen zuzendaria izateko. Benetan pentsatzen dut zorte handiko pertsona izan nintzela irakasle zoragarri haiek izan nituelako; beti egongo naiz eskertuta.

Aipa ditzaket, nola ez, Enrique García Asensio nire irakaslea, Margarita Lorenzo de Reizabal, Pedro Gandía, María Eugenia Luc, Isabel Urrutia, Jose Luis Estellés… horiek guztiak oinarrizkoak izan ziren niretzat. Jakina, ez ditut ahaztu nahi nire Gradu Amaierako Laneko tutore María José Cano eta gurekin primeran portatu ziren beste asko ere. Ateak ireki zizkiguten eta zekiten guztia erakutsi ziguten aurrera egiteko tresnak izan genitzan. Guztientzat, beti, nire miresmen eta esker onik handiena.

> “Mi paso por Musikene fue trascendental y decisivo para convertirme en la directora que soy”

> “Musikenetik igarotzea transzendentala izan zen, eta erabakigarria gaur egun naizen zuzendaria izateko”

**- Siendo ex alumna del centro, ¿cómo te has sentido al volver a Musikene, esta vez como directora invitada?**

- Afortunadamente he tenido la suerte de cumplir muchísimos sueños con la carrera profesional que he construido, y para mí ha sido un regalo volver a la ciudad, al centro donde estudié, donde soñaba con poder dirigir una orquesta profesional y donde me dieron las herramientas para que así pudiera ser. Estoy enormemente ilusionada, muy emocionada y, desde luego, para mí es una experiencia inolvidable.

**- Ikastegiko ikasle ohi izanda, nola sentitu zara Musikenera itzultzean, oraingoan zuzendari gonbidatu gisa?**

- Zorionez, eraiki dudan ibilbide profesionalarekin amets asko betetzeko aukera izan dut, eta niretzat opari bat izan da ikasi nuen hirira eta ikastegira itzultzea; orkestra profesional bat zuzentzearekin amesten nuen tokira, hain zuzen. Bertan eman zizkidaten hori lortzeko tresnak. Izugarrizko ilusioa dut, oso hunkituta nago eta, zalantzarik gabe, esperientzia ahaztezina da niretzat.



**- Aún hay pocas mujeres directoras de orquesta. ¿A qué crees que se debe?**

- En el mundo de la dirección de orquesta se da el reflejo de la sociedad. No hay que olvidar que solo se sube uno al podio y esto es muy complicado. Queda una revolución pendiente, y es que las mujeres nos consolidemos en puestos de responsabilidad. Por mi parte, voy a seguir dando lo mejor de mí para dar ejemplo y que así sea. Es aún complejo y complicado, pero considero que se están dando pasos hacia delante. Cada vez hay más alumnas de dirección de orquesta en las escuelas superiores; cada vez hay más mujeres estudiando dirección; cada vez hay más mujeres en bandas, coros, orquestas amateur, semi-profesionales y profesionales. Seguimos siendo muy pocas, en números no superamos el 10% o el 15%, pero yo creo que hay que trabajar con ilusión y sobre todo hay que estar preparadas para que cuando las oportunidades lleguen, aprovecharlas, agarrarnos a ellas y crecer en este mundo tan complejo de la música y la dirección de orquesta.

**- Oraindik emakumezko orkestra zuzendari gutxi dago. Zure ustez, zergatik?**

- Orkestra-zuzendaritzaren mundua gizartearen isla da. Ez dugu ahaztu behar podiumera pertsona bakarra igotzen dela, eta hori izugarri zaila da. Iraultza bat falta da oraindik: emakumeok ardura-postuetan finkatzea. Nire aldetik, nire onena ematen jarraituko dut eredua emateko eta hala izan dadin. Oraindik konplexua eta zaila da, baina aurrerantz goazela uste dut. Gero eta emakumezko ikasle gehiago dago goi-mailako eskoletan zuzendaritza ikasten; gero eta emakume gehiago dago bandetan, abesbatzetan, orkestra amateurretan, erdi-profesionaletan eta profesionaletan. Oraindik oso gutxi gara, zenbakitan ez gara %10a edo %15a baino gehiago, baina uste dut ilusioarekin egin behar dela lan, eta batez ere, prest egon behar dugula aukerak datozenean baliatzeko, horiei heltzeko eta musika zein orkestra-zuzendaritzaren mundu konplexu honetan hazteko.

> “En el mundo de la dirección de orquesta se da el reflejo de la sociedad”

> “Orkestra zuzendaritzaren mundua gizartearen isla da”

**- En 2019 protagonizaste la campaña del Banco Santander visibilizando el liderazgo femenino. ¿Qué te llevó a ello?**

- ¡La verdad que participar en esta campaña fue toda una sorpresa! De pronto me llamó un número de teléfono largo que casi no cojo, y me dijeron “¡No cuelgues! Te llamamos del Banco Santander, pero no te vamos a vender nada. Queremos ofrecerte que colabores con nosotros en una campaña”. Fue maravillosa y un auténtico honor hacia las mujeres músicas, una suerte, y una experiencia inolvidable, no solo por el hecho de participar en la campaña con todo lo que conllevó, sino porque entre nosotras hemos mantenido la acción y hemos tenido reuniones. La verdad es que han sido muy enriquecedoras, porque hemos podido hablar de los problemas que nos vamos encontrando y sobre todo de cómo solucionarlos. Sin duda alguna, siento muchísimo orgullo de haber tenido esa oportunidad y de poder visibilizar a las mujeres en un campo donde todavía queda mucho por hacer.

**- 2019an Banco Santanderren kanpaina bateko protagonista izan zinen, emakumeen lidergoa ikusarazteko. Zerk eraman zintuen horretara?**

- Egia esan, kanpaina horretan parte hartzea ustekabe galanta izan zen! Bat-batean, ia erantzun ez nion telefono zenbaki luze batetik deitu zidaten, eta esan zidaten: “Ez eskegi! Banco Santandertik deitzen dizugu, baina ez dizugu ezer salduko. Gurekin kanpaina batean laguntzea eskaini nahi dizugu”. Zoragarria izan zen, eta benetako ohorea emakume musikari guztientzat; zorte handia eta esperientzia ahaztezina. Ez bakarrik kanpainan parte hartzeagatik eta horrek ekarri zuen guztiagatik, baizik eta gure artean jarraipena eman diogulako eta bilerak egin ditugulako. Oso aberasgarriak izan dira, gure artean aurkitzen ari garen arazoez eta, batez ere, horiek nola konpondu hitz egin ahal izan dugulako. Zalantzarik gabe, harro nago aukera hau izanagatik eta oraindik egiteko asko dagoen alor batean emakumeak ikusarazteko aukera izateagatik.

**- Has dirigido a la Orquesta Sinfónica de Musikene la *Sinfonía nº 1, Titán* de Mahler y el *Concierto de flauta y orquesta* de Ibert ¿Cómo has abordado estas obras? ¿Qué es lo más importante desde el punto de vista de la dirección?**

- Yo estoy encantada y feliz de dirigir este repertorio que, sin duda alguna, recoge dos obras cumbre. La primera de ellas, el *Concierto para flauta* de Ibert, tiene un gran virtuosismo en el solista y es de una delicadeza increíble. Es muy interesante, exquisita desde el punto de vista formal, contrapuntístico, rítmico, tímbrico… He disfrutado mucho el proceso de estudio y trabajo. ¡Y qué decir de la *Primera* de Mahler, que es una de las leyendas de la música clásica! Conlleva toda su energía, toda su fuerza, toda su ilusión por cambiar el mundo. Él quiso plasmar el universo de su vida interior y que la partitura reflejara toda su existencia. Por eso nace de la nada, como la naturaleza que poco a poco va creciendo, pasa por distintos contextos, al final cae al infierno, y de éste va al paraíso en el último movimiento. Este canto de esperanza, de triunfo de la vida sobre la muerte, del bien sobre el mal, es necesario en los tiempos que corren. Me ha hecho mucha ilusión compartir este repertorio con todos los alumnos de Musikene. Yo creo en la música como motor transformador del mundo, sé lo que se siente cuando uno está 24/7 en un centro de exigencia como Musikene, y mi mensaje es decirles que merece la pena el trabajo que están haciendo, que ellos son el futuro, que tienen grandísimas posibilidades y que la música es maravillosa.

**- Musikene Orkestra Sinfonikoa zuzendu duzu Mahlerren *1. Sinfonia*rekin, *Titan* eta Iberten *Flauta eta orkestrarako kontzertua*rekin. Nola ikusi dituzu obra hauek? Zer da garrantzitsuena zuzendaritzaren ikuspuntutik?**

- Pozik eta zoriontsu nago zalantzarik gabe bi obra goren biltzen dituen errepertorio hau zuzentzeagatik. Lehenengoak, Iberten *Flauta kontzertuak*, birtuosismo handia eskatzen dio bakarlariari eta fintasun izugarrikoa da. Oso interesgarria da, bikaina ikuspuntu formaletik, kontrapuntistikotik, erritmikotik, tinbrikotik... Asko gozatu dut ikasketa eta lan prozesuarekin. Eta zer esan Mahlerren *Lehenengoa*ri buruz, musika klasikoaren legenda baita! Bere energia guztia dakar, bere indar guztia, mundua aldatzeko zuen ilusio guztia. Bere barne-bizitzaren unibertsoa irudikatu nahi izan zuen, partiturak bere existentzia osoa isla zezan. Horregatik jaiotzen da ezerezetik, poliki-poliki hazten doan natura bezala; testuinguru ezberdinetatik igarotzen da, amaieran infernura erori eta, handik, paradisura doa azken mugimenduan. Itxaropen kantu hau, bizitzak heriotzari irabaztearena, ongiak gaizkiari, beharrezkoa da bizi dugun garai hauetan. Ilusio handia egin dit errepertorio hau Musikeneko ikasle guztiekin partekatzeak. Musikan sinesten dut, mundua eraldatzeko eragile gisa; badakit zer sentitzen den Musikene bezalako exigentzia maila altuko ikastegi batean 24/7 egotean, eta nire mezua da egiten ari diren lanak merezi duela, haiek direla etorkizuna, aukera handiak dituztela eta musika zoragarria dela.



**Lucía Marín en la campaña de Banco Santander, 2019.**



# ERASMUS

En esta sección, dedicada al programa Erasmus +, os contamos las vivencias del alumnado de Musikene en el extranjero, así como las impresiones de los estudiantes que acuden a nuestro centro. En esta ocasión nos centramos en Austria, país relacionado con los dos protagonistas de este número. Hemos hablado con Lukas Rudas, estudiante de la Universität für Musik und darstellende Kunst de Viena, que viene de intercambio a Musikene por segunda vez. Además, contamos con la opinión de  Alejandra Cortijo, alumna de Musikene que ha estado en el Mozarteum de Salzburgo durante el primer semestre del curso. Alejandra es, además, noticia porque ha obtenido una plaza en la WDR Sinfonieorchester de Colonia, una agrupación profesional de primer nivel.

MAIDER OTEGI. Erasmus+ programari eskainitako atal honetan, Musikeneko ikasleek atzerrian izandako bizipenak eta gurera datozen ikasleen inpresioak ekartzen dizkizuegu. Oraingo honetan Austria dugu ardatz, ale honetako bi protagonistekin lotura baitu herrialde horrek.

Batetik, Lukas Rudasekin hitz egin dugu; Vienako Universität für Musik und darstellende Kunst unibertsitateko ikaslea da, eta bigarren aldiz etorri da Musikenerekin elkar-trukea egitera. Bestetik, Alejandra Cortijo Musikeneko ikaslearen iritzia jaso dugu; ikasturteko lehen seihilekoan Salzburgoko Mozarteumean egon da. Alejandra, gainera, albiste da gaur egun, lehen mailako talde profesional batean, Koloniako WDR Sinfonieorchester orkestran, plaza lortu baitu.

# Alejandra Cortijo

## Interpretación - Flauta



Alejandra en los pasillos de Musikene.

Desde que entró en Musikene, Alejandra Cortijo tenía en mente realizar un Erasmus y su plan inicial era cursarlo en tercer curso, como la mayoría de los estudiantes. “Cuando me presenté, los profesores con los que yo quería estudiar no tenían plaza. No obstante, como mi principal objetivo con el Erasmus era conocer a un potencial profesor para el Máster, irme en el primer semestre de 4º, aunque fuera menos tiempo, no era tampoco para nada una mala idea por su proximidad a las pruebas”. Eligió el Mozarteum principalmente por el docente, Michael Kofler: “me lo habían recomendado muchas veces antes de conocerlo, y aunque no pude dar clase con él antes del Erasmus, fui a Salzburgo a escuchar un día de sus clases y me gustó mucho. Me encantó su forma de enseñar y el nivel de sus alumnos era altísimo”. El centro austríaco es más grande que Musikene y tiene mucha más presencia internacional. Alejandra destaca que la forma de organizar las clases es más libre y se adapta al calendario del alumnado, pues hay mucha gente que tiene contratos o plazas en orquestas y necesita mayor flexibilidad.

En cuanto a sus expectativas, “¡se han superado!”, exclama. “Esperaba que el cambio de aires me empujara a estudiar y así pudiera mejorar, pero además he podido aprender muchísimo de mis compañeros, tanto de flauta como de otros instrumentos, así como de mi profesor”. Además de descubrir que le gusta comer a las 12:00, Alejandra se ha llevado otras sorpresas: “en una de las primeras clases de flauta, mi profesor me preguntó cuáles eran mis planes y le dije que quería hacer audiciones para academias y orquestas jóvenes, pero él me dijo que me veía perfectamente preparada para hacer las pruebas para agrupaciones profesionales. Me costó creerlo, pero resulta que tenía razón… La plaza en la WDR (Orquesta Sinfónica de la Radio de Colonia) definitivamente fue una sorpresa”. De hecho, asegura que la ha conseguido gracias al intercambio, porque si no, no se habría presentado. En Alemania y Austria no es necesario tener titulación para hacer pruebas, y “al ver que allí es habitual que los estudiantes empiecen a hacer pruebas de orquesta muy pronto, decidí presentarme y tuve la suerte de que me invitaran a la audición. Además, la proximidad entre Salzburgo y Colonia hizo que me planteara hacer la prueba, mientras que, estando en España, no me habría parecido tan apetecible hacer un viaje a Alemania para tal vez no pasar de la primera ronda”.

Se incorporará a la prestigiosa orquesta alemana oficialmente la temporada que viene, y le hace mucha ilusión poder terminar sus estudios con sus profesores Miguel Ángel Angulo y Álvaro Octavio en Musikene, “un sitio que me ha dado muchísimo”. Estos últimos meses de curso ha tocado en un proyecto como flauta principal en la WDR, ha actuado como solista en el encuentro con la Orquesta Sinfónica de Musikene tocando el *Concierto para flauta* de Ibert, y realizará estos días el recital de fin de carrera. Para ella, todas estas actividades “prometen ser muy especiales”. En el futuro cercano destaca “de momento el año de prueba en la orquesta, así que me centraré en adaptarme a su manera de tocar para congeniar lo mejor posible con mis futuros compañeros. Después, poco a poco se irá viendo”.



# OUT Mozarteum Salzburg

## Interpretazioa - Flauta




Musikenen sartu zenetik, Alejandra Cortijok Erasmus bat egitea zuen buruan, eta bere asmoa, ikasle gehienek bezala, hirugarren mailan egitea zen. Eskaera egin zuen, “baina ikasi nahi nuen irakasleek ez zuten plazarik. Dena den, Erasmusekin nuen helburu nagusia Masterrerako irakasle bat ezagutzea zenez, 4. mailako lehen seihilekoan joatea —denbora gutxiago izan arren— ez zen batere ideia txarra, probak gertu baitzeuden”. Mozarteum aukeratu zuen, batez ere Michael Kofler irakaslearengatik: “Askotan gomendatu zidaten bera ezagutu aurretik, eta Erasmusa hasi aurretik berarekin eskolarik eman ezin izan nuen arren, Salzburgora joan nintzen egun batean bere eskolak entzutera eta asko gustatu zitzaidan. Bere irakasteko modua zoragarria iruditu zitzaidan, eta ikasleen maila izugarria zen”. Austriako ikastegia Musikene baino handiagoa da eta presentzia handiagoa du nazioartean. Alejandrak nabarmendu duenez eskolak antolatzeko modua askeagoa da eta ikasleen egutegira egokitzen da; izan ere, jende askok orkestretan kontratuak edo plazak dituenez, malgutasun handiagoa behar izaten dute.

Espektatibei dagokienez, “gainditu egin dira!”, adierazi du. “Aldaketak ikastera bultzatuko ninduela espero nuen, hobetu ahal izateko, baina, horrez gain, asko ikasi dut nire ikaskidekin —bai flautakoekin, baita beste instrumentu batzuetakoekin ere— eta nire irakaslearekin”. Eguerdiko 12:00etan bazkaltzea gustuko duela deskubritzeaz gain, Alejandrak bestelako ustekabeak ere hartu ditu: “Flautako lehen eskoletako batean, irakasleak nire asmoak zein ziren galdetu zidan; nik akademietarako eta orkestra gazteetarako entzunaldiak egin nahi nituela esan nion, baina berak erantzun zidan talde profesionaletarako probak egiteko guztiz prest ikusten ninduela. Sinestea kostatu zitzaidan, baina arrazoi zuela ikusi da… WDR orkestrako plaza ezusteko galanta izan da zalantzarik gabe”. Izan ere, elkar-truke programari esker lortu duela ziurtatu du, bestela ez baitzen aurkeztuko. Alemanian eta Austrian ez da beharrezkoa titulazioa izatea probak egiteko, beraz “han ikasleak orkestra-probak egiten oso goiz hasten direla ikustean, aurkeztea erabaki nuen, eta entzunaldira gonbidatua izateko zortea izan nuen. Gainera, Salzburgo eta Kolonia arteko distantzia laburrak proba egitera animatu ninduen; Espainian egonda, aldiz, ez litzaidake hain erakargarria irudituko Alemaniaraino bidaiatzea, lehen txanda gainditzeko bermerik gabe”.

Datorren denboraldian hasiko da ofizialki Alemaniako orkestra entzutetsuarekin, eta ilusio handia egiten dio ikasketak Musikenen Miguel Ángel Angulo eta Álvaro Octavio irakasleekin amaitu ahal izateak; bere hitzetan, “leku horrek asko eman dit”. Ikasturteko azken hilabete hauetan, WDR orkestran flauta nagusi gisa jo du proiektu batean, eta bakarlari gisa aritu da Musikene Orkestra Sinfonikoarekin Iberten *Flauta Kontzertua*n. Gainera, egun hauetan karrera amaierako emanaldia egingo. Berarentzat, jarduera horiek guztiak “oso bereziak izango dira”. Etorkizun hurbilari begira, hau nabarmendu du: “Momentuz, orkestran egingo dudan proba-urtea dut aurretik; beraz, haien jotzeko modura moldatzen saiatuko naiz, nire etorkizuneko kideekin ahalik eta ondoen konektatzeko. Gero, poliki poliki ikusiko dugu”.

# Lukas Rudas

## Pedagogía

## IN Universität für Musik und darstellende Kunst Wien



Lukas Musikeneko gela batean.

Lukas Rudas ha venido de Erasmus a Musikene por segunda vez. La primera lo hizo como alumno de arpa, y en esta ocasión ha vuelto para continuar sus estudios de canto y pedagogía. Ha elegido de nuevo nuestro centro porque le parece que "un Erasmus es corto. Pasas poco tiempo en un lugar y cuando te acostumbras y te integras, ya tienes que volver a casa". Tras haber estado de intercambio en Bolonia sabía que "en Musikene no partiría de cero, sino que podría seguir un camino que ya empecé hace tiempo. En pocas palabras, me parece un centro con muy buen ambiente y nivel, y el País Vasco es un lugar único por su cultura, geografía e idioma". Respecto a su última estancia aquí, cree que va a experimentar los cambios naturales propios de la nueva especialidad, en este caso, la variedad de estudios que conlleva Pedagogía frente a arpa. "Además, soy tres años mayor. Sigo siendo naíf, pero en la música sé mejor cuáles son mis debilidades y mis objetivos. También espero hablar y mejorar mi euskera", y para ello se ha matriculado en un Euskaltegi. Por eso, espera estar muy ocupado, pero "quiero absorber la mayor cantidad de experiencias posible. Quizás no pueda aprender y comprenderlo todo, pero podré entrar en un mundo nuevo por un tiempo".

Por otro lado, quiere entablar nuevas amistades en nuestro centro: "hay mucha gente agradable de todo el mundo con quien puedo compartir mi pasión por la música". De momento, destaca la rapidez con la que se ha adaptado al ritmo de trabajo con sus profesores, además del buen ambiente del departamento de Pedagogía en general, gracias al que nunca se siente solo. De todas formas, "estudiar en Viena es diferente. No tenemos clases fijas cada año, sino libertad para elegir cuándo y cuántas clases queremos tomar por semestre. Por lo tanto, no tenemos un grupo estable cada año, sino que cada alumno va más por su cuenta y el estudio es más libre". El ambiente de Musikene también le parece más cercano y familiar, sobre todo por ser un centro más pequeño. En la universidad de la que proviene Lukas, además de música, se puede estudiar cine, teatro y danza, y la investigación está muy presente. Además, se nota la diferencia que tienen ambos centros en los planes de estudios.

Quizás por ser su segunda vez en Donostia, la diferencia de costumbres y el idioma no han supuesto un gran problema de momento. "No entiendo todo en euskera y ni siquiera puedo hablar en este idioma sobre temas complejos, pero las clases suelen ser en español, que hablo mejor", y lo único que señala son detalles como los gastronómicos o relacionados con el tráfico. La cultura, la historia y la política del País Vasco le parecen muy interesantes. "Cuando llegué aquí por primera vez, no entendía muchas cosas, pero gracias al idioma voy comprendiendo cada vez mejor qué es el País Vasco y qué significa ser vasco. Me gusta aprender euskera, y si voy a vivir aquí, ¿por qué no hacerlo?".

Lukas Rudas bigarren aldiz etorri da Erasmus programarekin Musikenera. Lehenengoan harpa ikasle gisa etorri zen, eta oraingoan berriz kantu eta pedagogia ikasketak jarraitzera itzuli da. Gure ikastegia aukeratu du berriro ere, bere ustez "Erasmus bat laburra delako. Leku batean denbora gutxi pasatzen duzu, eta ohitu eta integratzen zarenean, etxera itzuli behar duzu". Bolonian elkar-trukean egon ondoren, bazekien "Musikenen ez nintzela zerotik hasiko, lehendik hasitako bide bati jarraipena eman niezaiokeela baizik. Laburbilduz, giro eta maila oso ona duen ikastegia dela iruditzen zait, eta Euskal Herria leku paregabea da bere kultura, geografia eta hizkuntzagatik". Hemen egin zuen azken egonaldiarekin alderatuta, espezialitate berriak berezko dituen aldaketak biziko dituela uste du; kasu honetan, Pedagogiak harparekin alderatuta dakarren ikasketa aniztasuna. "Gainera, hiru urte zaharragoa naiz. Naif izaten jarraitzen dut, baina musikan hobeto dakit zeintzuk diren nire ahulguneak eta helburuak. Euskara maila ere hobetzea espero dut", eta horretarako euskaltegi batean eman du izena. Hori dela eta, oso lanpetuta egongo dela uste du, baina "ahalik eta esperientzia gehien barneratu nahi ditut. Agian ezingo dut dena ikasi eta ulertu, baina denbora batez mundu berri batean sartu ahal izango naiz".

Bestalde, gure ikastegian lagun berriak egin nahi ditu: "mundu osoko jende atsegina dago, musikarekiko dudan pasioa partekatzeko". Momentuz, irakasleekin lan-erritmora zein azkar egokitu den nabarmendu du, baita Pedagogia sailaren giro ona ere, horri esker ez baita inoiz bakarrik sentitzen. Dena den, "Vienan ikastea desberdina da. Ez dugu urtero klase finkorik; seihileko bakoitzean nola eta zenbat klase hartu aukeratzeko askatasuna dugu. Beraz, ez dugu talde egonkor bat urtero, ikasle bakoitza bere kabuz doa eta ikasketak askeagoak dira". Musikeneko giroa ere gertukoagoa eta familiarra iruditzen zaio, batez ere zentro txikiagoa delako. Lukas datorren unibertsitatean, musikaz gain, zinema, antzerkia eta dantza ikas daitezke, eta ikerketak presentzia handia du. Gainera, nabaria da bi zentroek ikasketa-planetan duten aldea.

Agian Donostian dagoen bigarren aldia denez, ohitura eta hizkuntza aldeak ez dira arazo handia izan momentuz. "Euskaraz ez dut dena ulertzen eta ezin dut hizkuntza honetan gai konplexuei buruz hitz egin, baina eskolak gaztelaniaz izan ohi dira, eta hori hobeto egiten dut"; gastronomia edo trafikoa bezalako xehetasunak besterik ez ditu aipatzen. Euskal Herriko kultura, historia eta politika oso interesgarriak iruditzen zaizkio. "Hona lehen aldiz iritsi nintzenean ez nituen gauza asko ulertzen, baina hizkuntzari esker, gero eta hobeto ulertzen ari naiz zer den Euskal Herria eta zer esan nahi duen euskalduna izateak. Euskara ikastea gustatzen zait, eta hemen bizi behar badut, zergatik ez egin?".

# NOTICIAS | | BERRIAK

ENERO

URTARRILA

Musikeneko Sorkuntza Masterreko hiru ikasle, 25.000€-ko beka banarekin sarituak



Tres compositores del Máster de Creación de Musikene, premiados con becas de 25.000€

FEBRERO

OTSAILA

Musikene protagoniza la XVII edición del ciclo "Nuevos talentos en la música de cámara"



Musikene Protagonista “XVII. Talentu Berriak Ganbera Musikan” zikloan

MARZO

MARTXOA

Charla y concierto para celebrar el Día Internacional de la Mujer



Intza Martin Egañak X Donostiako Orfeoia-Musikene Saria jaso du

ABRIL

APIRILA




Gipuzkoako Organoak Plazara 2026

MAYO

MAIATZA




Musikene Big Band eta Orkestra Sinfonikoaren kontzertuak

¡Lee todas las noticias clickando en cada mes!

Irakurri albiste guztiak hilabete bakoitzean klik eginez!

# Back to the Codes, cuando la música de conjunto salta del aula al éxito nacional

Tras presentar un ambicioso proyecto monográfico dedicado al icónico álbum *Black Codes (From the Underground)* de Wynton Marsalis, algunos estudiantes del departamento de jazz de Musikene han realizado una exitosa gira por las principales ciudades del país.

Varios alumnos de la especialidad de jazz de nuestro centro formaron en septiembre un quinteto para la asignatura de música de cámara, realizando un ambicioso repertorio monográfico dedicado a Wynton Marsalis y a su icónico álbum *Black Codes (From the Underground)*. El conjunto, formado por Pablo Comiskey (trompeta), Miguel Velasco (saxo), Daniel López 'Donny' (piano), Adam Chomiuk (contrabajo), Iván Álvarez 'Doktor Evans' (batería) e impulsado por el profesor Carlos Martín, nació como un homenaje vivo a uno de los discos clave del jazz moderno, una obra que marcó el rumbo del post-bebop y reivindicó el jazz acústico como espacio de innovación, riesgo y excelencia musical.

El grupo Back to the Codes, cuyo nombre juega con el título del disco, abordó este repertorio "desde una mirada joven, enérgica y profundamente respetuosa con la tradición, combinando rigor estilístico, personalidad propia y una fuerte conexión escénica", según señalan sus componentes. En palabras del batería del grupo, Iván Álvarez, la intención fue "homenajear el icónico disco de Marsalis volviendo a los códigos más clásicos del jazz sin olvidar la modernidad y la vanguardia".

Tras presentar su proyecto en las aulas de Musikene, el grupo dio el salto al mundo profesional en un tour que se desarrolló del 28 de enero al 3 de febrero. Esta gira, que les llevó a agotar entradas en salas de referencia de la escena jazzística española como el Tempo Club de Madrid, y la Jimmy Glass de Valencia, les ha motivado para seguir trabajando juntos.

> El grupo dio el salto al mundo profesional en un tour que les llevó a agotar entradas en salas de referencia de la escena jazzística española






**El quinteto de jazz Back to the codes.**

# Back to the Codes, talde musikak ikasgelatik arrakasta nazionalera jauzi egiten duenean

Wynton Marsalisen *Black Codes (From the Underground)* disko ikonikoari eskainitako proiektu monografiko handi bat aurkeztu ondoren, Musikeneko jazz saileko ikasle batzuek bira arrakastatsua egin dute Estatuko hiri nagusietan.

TOMÁS VIDAL. Gure ikastegiko jazz espezialitateko zenbait ikaslek ganbera musika irakasgairako boskote bat osatu zuten irailean, Wynton Marsalisi eta *Black Codes (From the Underground)* disko ikonikoari eskainitako errepertorio monografiko anbiziotsua eginez. Pablo Comiskey (tronpeta), Miguel Velasco (saxoa), Daniel López 'Donny' (pianoa), Adam Chomiuk (kontrabaxua), Iván Álvarez 'Doktor Evans' (bateria) eta Carlos Martín irakasleak bultzatutako taldea jazz modernoaren funtsezko diskoetako baten omenaldi bizi gisa sortu zen, post-beboparen norabidea markatu zuen obra, eta jazz akustikoa musikaren berrikuntza, arrisku eta bikaintasunerako gune gisa aldarrikatu zuen.

Back to the Codes taldeak, bere izenean diskoaren izenburuarekin jolasten duenak, errepertorio hau "begirada gazte, kementsu eta tradizioarekiko begirune handiarekin jorratu zuen, zorroztasun estilistikoa, nortasun propioa eta lotura eszeniko sendoa uztartuz", taldekideek adierazi dutenez. Ivan Alvarez taldeko bateria-jotzailearen hitzetan, asmoa "Marsalisen disko ikonikoa omentzea izan zen, jazzaren kode klasikoenetara itzuliz, modernitatea eta abangoardia ahaztu gabe".

Bere proiektua Musikeneko ikasgeletan aurkeztu ondoren, taldeak mundu profesionalera jauzi egin zuen urtarrilaren 28tik otsailaren 3ra egin zen bira batean. Bira honek Madrilgo Tempo Club eta Valentziako Jimmy Glass bezalako Estatuko jazzaren erreferentziazko aretoetan sarrerak agortzera eraman zituen, eta elkarrekin lan egiten jarraitzeko motibatu ditu.

> Taldeak mundu profesionalera egin zuen salto, Estatuko jazzaren erreferentziazko aretoetan sarrerak agortzera eraman zituen bira batean

# N. A. O.



Nuestro alumnado opina. En esta sección mostramos vuestras opiniones, consejos e iniciativas. Todos ellos navegarán en esta NAO.

Gure ikasleen iritzia. Atal honetan zuen iritziak, aholkuak eta ekimenak erakusten ditugu. NAO honetan nabigatuko dute.

## La Big Band, en clave femenina

## Big Banda, emakumeen klabean



**Musikene Big Band junto a Sheila Blanco y Miguel López.**

PABLO FALCÓN. La voz de las olvidadas poetas del 27 resonó con fuerza en Musikene el pasado 13 de febrero. El auditorio, repleto de gente de todas las edades, pudo disfrutar de un precioso concierto de la Musikene Big Band en el que se reivindicó a las grandes desconocidas de la Generación del 27, autoras como Concha Méndez, Carmen Conde o Josefina Romo Arregui, entre otras.

Hace unos años, la compositora y cantante Sheila Blanco reunió poemas de escritoras cuyos nombres fueron silenciados por la sombra de sus homólogos masculinos en su disco *Cantando a las poetas del 27*. Para esta ocasión, el director Miguel López recogió la colección en una serie de arreglos para Big Band, trasladando así este particular cancionero breve al jazz, con el fin de dar un impulso al repertorio creado por Sheila Blanco hacia una expresión jazzística.

El evento consiguió fusionar la literatura, la reivindicación histórica y el jazz de gran formato de manera extraordinaria y variada, contando con grandes solistas, tanto en el plano instrumental como vocal. De esta forma, la Musikene Big Band no solo celebró el pasado, sino que dio un impulso contemporáneo al legado de estas poetas, garantizando que su voz resuene con la fuerza de una gran formación musical.

La Musikene Big Band ofreció su último concierto del curso el pasado 8 de mayo en el Teatro Leidor de Tolosa, esta vez bajo la dirección del maestro alemán Sven Heinze.

27ko Belaunaldiko poeta ahaztuen ahotsak indarrez egin zuen oihartzun Musikenen joan den otsailaren 13an. Auditoriumak, adin guztietako jendez beteta, Musikene Big Bandaren kontzertu zoragarri batez gozatu ahal izan zuen. Bertan, 27ko Belaunaldiko egile ezezagun handiak aldarrikatu ziren, hala nola Concha Méndez, Carmen Conde edo Josefina Romo Arregui, besteak beste.

Duela urte batzuk, Sheila Blanco musikagile eta abeslariak euren gizonezko kideen itzalak isilarazitako idazleen olerkiak bildu zituen bere *Cantando a las poetas del 27* diskoan. Oraingo honetan, Miguel López zuzendariak bilduma hori Big Banderako hainbat moldaketatan jaso zuen kantu-liburu labur berezi hori jazzera eramanez, Sheila Blancok sortutako errepertorioari jazz adierazpen baterantz bultzada emateko asmoz.

Ekitaldiak literatura, aldarrikapen historikoa eta formatu handiko jazza modu bikain eta anitzean uztartzea lortu zuen, eta bakarlari handiak izan zituen, bai arlo instrumentalean, bai eta bokalean ere. Horrela, Musikene Big Bandak iragana ospatzeaz gain, bultzada garaikidea eman zion poeta horien ondareari, euren ahotsak musika talde handi baten indarrez entzutea bermatuz.

Musikene Big Bandak ikasturteko azken kontzertua eskaini zuen joan den maiatzaren 8an Tolosako Leidor Antzokian, oraingoan Sven Heinze maisu alemaniarraren zuzendaritzapean.

# Éxito de la orquesta con Prokofiev y Khachaturian

# Orkestraren arrakasta Prokofiev eta Khachaturianekin



**George Pehlivanian y Josep Alborch durante su interpretación del *Concierto para violín nº 2* de Prokofiev junto a la orquesta.**

BIXEN GÓMEZ. El segundo encuentro de la orquesta se llevó a cabo la semana del 16 de febrero y contó con la participación de George Pehlivanian, director de reconocimiento internacional. La sesión se abrió con el *Adagio* de *Spartacus*, una de las composiciones estrella del creador georgiano Aram Khachaturian. La agrupación transmitió el ferviente sentimiento amoroso de la escena que se representa con esta música. A continuación, el alumno Josep Alborch se unió al resto como solista en el *Concierto para violín y orquesta nº 2* de Sergei Prokofiev. En los ensayos Pehlivanian había dado especial importancia al diálogo con el solista y este trabajo dio sus frutos con una aclamada interpretación que culminó con un movimiento de la *Partita nº 3 para violín* de Bach por parte de Alborch. La segunda parte contó con una selección de números aislados de las dos suites de *Romeo y Julieta* de Prokofiev. Entre ellos se escucharon algunos de los más populares como *Los Montescos y Los Capuletos*, *La joven Julieta*, *Máscaras* y *La muerte de Teobaldo*. Estas piezas fueron abordadas de manera excepcional, brindando una disfrutable escucha de una de las obras con más peso de la historia de la música.

El último encuentro del curso de la orquesta se celebró el 9 de mayo bajo la dirección de la ex alumna de Musikene Lucía Marín, con obras de Ibert y Mahler.

Orkestraren bigarren topaketa otsailaren 16ko astean egin zen, eta George Pehlivanian nazioartean ospe handiko zuzendariak parte hartu zuen. Saioa *Spartacus*en *Adagio* lanarekin hasi zen, Aram Khachaturian georgiar sortzailearen konposizio kuttunenetako bat. Taldeak musika honekin irudikatzen den eszenako maitasun sentimendu sutsua transmititu zuen. Ondoren, Josep Alborch ikaslea bakarlari izan zen Sergei Prokofieven *Biolin eta orkestrarako 2. kontzertua*n. Entseguetan, Pehlivanianek garrantzi berezia eman zion bakarlariarekin elkarrizketari, eta lan horrek bere fruituak eman zituen Alborchek Bachen *Biolin partita* bateko mugimendu batekin amaitu zuen interpretazio txalotuarekin. Bigarren zatia Prokofieven *Romeo eta Julieta* bi suiteen zenbaki isolatuen aukeraketa bat izan zen. Horien artean ezagunenetako batzuk, hala nola *Montescotarrak eta Capuletotarrak*, *Julieta gaztea*, *Maskarak* eta *Teobaldoren heriotza*. Aparteko moduan jorratu ziren pieza horiek, musikaren historian pisu handiena izan duen obretako bat entzuteko aukera eskainiz.

Orkestraren ikasturteko azken topaketa maiatzaren 9an egin zen, Lucía Marin Musikeneko ikasle ohiaren zuzendaritzapean, Ibert eta Mahlerren obrekin.



# Brillante despedida de la Banda de Musikene

# Musikeneko Bandaren agur bikaina



**La solista Rocío Fernández Alfonso recibe la ovación del público y sus compañeros.**

GUERAU GARRIGÓS. La Banda Sinfónica de Musikene realizó su último concierto del curso el pasado 7 de marzo bajo la batuta de David Fiuza y la clarinetista Rocío Fernández Alfonso como solista. El programa recogió a los mayores exponentes de la música de banda como Fauchet, Hindemtih, Navarro, Grainger y Vaughan Williams. La velada destacó por la emotiva interpretación, tanto de la solista como de la agrupación, del *Concierto para clarinete nº 2* de Óscar Navarro.

Musikeneko Banda Sinfonikoak joan den martxoaren 7an eman zuen ikasturteko azken kontzertua, David Fiuzaren gidaritzapean eta Rocío Fernández Alfonso klarinete jotzailea bakarlari zela. Bandarako musikan adierazgarri nagusi diren Fauchet, Hindemith, Navarro, Grainger eta Vaughan Williams bezalakoen obrak bildu zituen egitarauak. Emanaldia Oscar Navarroren *Klarineterako 2. kontzertua*ren interpretazio hunkigarriagatik nabarmendu zen.

# MSKN Master Ensemble y el *Winterreise* de Schubert

# MSKN Master Ensemble eta Schuberten *Winterreise*

JUAN CUBILLAS. El pasado 28 de febrero tuvimos la oportunidad de asistir al concierto del MSKN Master Ensemble en el auditorio del centro, con José Luis Estellés como director. En esta ocasión, la propuesta fue *Winterreise*, de Franz Schubert (1797-1828), con la orquestación de 1993 escrita por Hans Zender (1936-2019). Pudimos escuchar una visión contemporánea de la obra, con una paleta sonora basada en la técnica extendida como una herramienta musical más a la hora de acompañar al texto y dar forma a la composición. La orquesta tuvo algún que otro momento notable, pero sin duda, quien se llevó la mayor ovación fue el tenor solista, Aitor Garitano, que brilló por la calidad de su sonido y la resistencia exigida por un programa de tal magnitud.

Joan den otsailaren 28an, MSKN Master Ensemble-ren kontzertura joateko aukera izan genuen ikastegiko auditoriumean, José Luis Estellés zuzendari zela. Oraingo honetan, proposamena Franz Schuberten (1797-1828) *Winterreise* izan zen, Hans Zenderrek (1936-2019) 1993an idatzitako orkestrazioarekin. Obraren ikuspegi garaikidea entzun ahal izan genuen, teknika hedatuan oinarritutako soinu paleta batekin, testuari laguntzeko eta konposizioari forma emateko beste musika tresna bat gisa erabilia. Orkestrak izan zuen une aipagarririk, baina, txalo zaparradarik handiena, zalantzarik gabe, Aitor Garitano tenor bakarlariak jaso zuen; distira egin baitzuen bere soinuaren kalitateagatik eta handitasun horretako programa batek eskatzen duen erresistentziagatik.

## La Sinfonietta viajó al Barroco

MAIDER OTEGI. El pasado 21 de marzo la Sinfonietta de Musikene se sumergió en el repertorio barroco bajo la dirección de Alfredo Bernardini, especialista en interpretación historicista. En el concierto que la agrupación ofreció en la Catedral Nueva de Vitoria, repleta de asistentes, destacaron varios alumnos solistas de diversas especialidades. Pedro Mullor y María Dolores Paloma interpretaron la *Suite para dos trompas y orquesta* de Telemann, y el barítono Hodei Yáñez actuó en la cantata *Ich habe genug* de Bach, acompañado de manera excelente al oboe por Adela Cao. Finalmente, el conjunto tocó la primera suite de *Water Music* de Händel. A pesar de la acústica reverberante y poco clara, las trompas lograron sobresalir y llegar al público, al igual que el barítono y el oboe, con sus complejos pasajes. Si bien solo algunos miembros de la agrupación utilizaron arcos de época, lo que limitó en cierto grado la sensación historicista, el alumnado de Musikene liderado por Bernardini regaló un carácter barroco excepcional.

## Sinfoniettak Barrokora egin zuen bidaia

Joan den martxoaren 21ean, Musikene Sinfonietta errepertorio barrokoan murgildu zen, interpretazio historizistan aditua den Alfredo Bernardiniren zuzendaritzapean. Taldeak Gasteizko Katedral Berrian eskaini zuen kontzertuan, hainbat espezialitatetako ikasle bakarlariak nabarmendu ziren. Pedro Mullorrek eta María Dolores Palomak Telemannen *Bi tronpa eta orkestrarako suitea* interpretatu zuten, eta Hodei Yáñez baritonoak Bachen *Ich habe genug* kantatan abestu zuen, oboearekin Adela Cao lagun zuela. Azkenik, taldeak Händelen *Water Music*en lehen suitea jo zuen. Akustika erreberberatzailea eta ez oso argia izan arren, tronpak gailendu eta ikusleengana iristea lortu zuten, baritonoa eta oboea bezalaxe, beren pasarte konplexuei aurre eginda. Garaiko arkuak taldeko kide batzuek bakarrik erabili bazituzten ere, horrek neurri batean pertzepzio historizista mugatu zuelarik, Bernardinik gidatutako Musikeneko ikasleek izaera barroko aparta eskaini zuten.



## ¿Un futuro esperanzador?

TIAN YUAN HUANG. En la decimoquinta edición del ciclo de conferencias *El músico profesional ante las industrias musicales*, que organiza el profesor Juan Solaguren, Musikene ha contado con figuras relevantes como Iñigo Alberdi, director general de la Orquesta Sinfónica de Bilbao, que ofreció una ponencia bajo el título de *Música y gestión: Sinfonía Concertante*, en la que se expusieron los retos y oportunidades que surgen actualmente en el contexto de las orquestas sinfónicas.

Además de tratar temas como el funcionamiento interno de las orquestas, Alberdi puso el foco en aquellos perfiles profesionales que trabajan detrás del escenario. Gestión, administración, educación o comunicación son áreas esenciales que contribuyen al correcto funcionamiento de la gran máquina orquestal, en la que actualmente es muy valiosa la presencia de profesionales con formación musical. Según explicó, nuestro panorama se encuentra actualmente en una época de transformaciones en el sector, donde la creciente necesidad de músicos con perfiles híbridos entre práctica artística y gestión, presenta nuevas oportunidades laborales. De esta forma, Alberdi ofreció una mirada esperanzadora hacia el futuro del músico en las orquestas, cuyo éxito no depende solo de la excelencia artística, sino de la habilidad de adaptarse, colaborar y comunicar de manera efectiva. Fue un auténtico placer poder escuchar la perspectiva de un profesional con tanta experiencia en la industria, no solo por su conocimiento, sino por su cercanía y voluntad de compartir su labor con nosotros.

## Etorkizun itxaropentsua?

Juan Solaguren irakasleak antolatutako *Musikari Profesionala eta Musika Industria* hitzaldi-zikloaren hamabosgarren edizioan Musikenek pertsonaia nabarmenak izan zituen, hala nola Iñigo Alberdi, Bilboko Orkestra Sinfonikoko zuzendari nagusia. Alberdik *Musika eta Kudeaketa: Sinfonia Kontzertantea* izeneko aurkezpena egin zuen, orkestra sinfonikoen testuinguruan sortzen ari diren erronkak eta aukerak azalduz.

Orkestren barne-funtzionamendua bezalako gaiak jorratzeaz gain, Alberdik eszenaren atzean lan egiten duten profil profesionaletan jarri zuen arreta. Kudeaketa, administrazioa, hezkuntza eta komunikazioa funtsezko arloak dira orkestra-makina handiaren funtzionamendu egokian laguntzen dutenak, musikalki trebatutako profesionalen presentzia oso baliotsua baita gaur egun. Sektorearen egungo paisaia eraldaketan dagoela azaldu zuen, praktika artistikoa eta kudeaketa konbinatzen dituzten profil hibridoak dituzten musikarien beharra gero eta handiagoa baita, karrera-aukera berriak eskaintzen dituena. Horrela, Alberdik ikuspegi itxaropentsua eskaini zuen orkestra musikarien etorkizunaren inguruan, haien arrakasta ez baitago soilik bikaintasun artistikoan, baita egokitzeko, lankidetzan aritzeko eta eraginkortasunez komunikatzeko gaitasunean ere. Benetako plazerra izan zen sektorean horrenbesteko esperientzia duen profesional baten ikuspuntua entzutea, ez bakarrik bere ezagutzagatik, baita bere hurbiltasun eta bere lana gurekin partekatzeko prestutasunagatik ere.



## *La muerte de Iván Ilich*, una joya eclipsada por los grandes

## *Ivan Ilichen heriotza*, handiek itzalitako harribitxia



**Detalle de la portada de *La muerte de Iván Ilich* de la edición Mesta.**

CAROLINA CORTIJO. Tolstói es indiscutiblemente uno de los grandes clásicos, afamado por obras monumentales de un complejísimo entramado de argumento y personajes. En cambio, su legado esconde otras obras maestras como *La muerte de Iván Ilich*, una historia breve y aparentemente sencilla que ha conseguido consagrarse como una novela esencial de la literatura universal.

Este libro nos presenta a un hombre que se enfrenta a su muerte. Es en el momento en el que advierte que va a morir en el que se percata de que no ha vivido. Desmigaja su existencia calificándola de frívola, al mismo tiempo que despliega un análisis crítico de la aristocracia rusa y de los cánones sociales en los que dichos aristócratas se veían atrapados.

Tolstói hace de esta novela una herramienta para denunciar los roles a los que la configuración social de la Rusia decimonónica obligaba a ceñirse.

Tolstoi klasiko handienetako bat da ezbairik gabe, argumentu eta pertsonaia sare konplexu bateko obra monumentalek famatua. Bere ondareak, ordea, beste maisulan batzuk ezkutatzen ditu, hala nola *Ivan Ilitxen heriotza*, istorio labur eta itxuraz sinplea, literatura unibertsalaren funtsezko eleberri izatea lortu duena.

Liburu honek bere heriotzari aurre egin behar dion gizon bat aurkezten digu. Hiltzera doala ohartzean konturatzen da ez dela bizi izan. Bere existentzia arinkeriatzat hartzen du, eta, aldi berean, aristokrazia errusiarraren eta aristokrata horiek harrapatuta zeuden kanon sozialen azterketa kritikoa egiten du.

Tolstóik eleberri hau Errusia hemeretzigarren mendeko konfigurazio sozialak estu hartzen zituen rolak salatzeko tresna bihurtzen du.



# Recomendaciones

Inicio

Buscar

Recomendaciones

Crear

Listas | Pódcasts | Álbumes | Artistas | Descargas

Recopilado por Carolina Cortijo y maquetado por Tian Yuan Huang



**Mitski**
Artista
*Recomendado por Rita Amaro Gonçalves*




**Blonde**
Frank Ocean
*Recomendado por Guerau Garrigós*



**Kishi Bashi**
Artista
*Recomendado por Bixen Gómez*



**Cuñados invisibles**
Artista
*Recomendado por Juan Cubillas*



**La Leyenda del Tiempo**
Camarón de la Isla
*Recomendado por Henar F. Clavel*



**Angine de Poitrine**
Artista
*Recomendado por Aner Torre*




**Cantando a las poetas del 27**
Sheila Blanco
*Recomendado por Pablo Falcón*




**Dichterliebe; Liederkreis op.39; Selection from "Myrten"**
R. Schumann
*Recomendado por Eugenia Morales Resina*



**Bewitched: The Godddess Edition**
Laufey
*Recomendado por Carolina Cortijo*

**Os invitamos a colaborar en esta sección**

¡Escribidnos por Instagram! **@musikenews**

**Atal honetan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu**

musikenews

**MSKNWS 52**
musikenews

0:53 -2:04




## *Órbitas*, un disco para guitarra




Nuria López García, compositora y guitarrista, lanza su primer proyecto discográfico en solitario, *Órbitas* en el que la guitarra actúa como eje gravitatorio que conecta y cohesiona distintas estéticas de música femenina, incluyendo obras propias. Su disco fue presentado por primera vez en el Ateneo Guipuzcoano en marzo de este año y ha sido seleccionado para Tour Gipuzkoa 2026, ciclo en el que ofrecerá una gira de conciertos. Todo el proceso de creación queda recogido en un documental creado por Sergio Rojo Osas que se publicará proximamente.

## *Órbitas*, gitarrarako diskoa

TOMÁS VIDAL VERA. Nuria López García konpositore eta gitarristak bere lehen bakarkako diskoa kaleratuko du, *Órbitas*. Bertan, gitarra grabitate ardatz gisa aritzen da, eta emakumezkoen musikaren hainbat estetika lotzen eta batzen ditu, bere obrak tartean. Diskoa aurtengo martxoan aurkeztu zen lehen aldiz Gipuzkoako Ateneoan eta Tour Gipuzkoa 2026rako hautatu dute. Sortze prozesu guztia Sergio Rojo Osasek sortutako dokumental batean dago jasota, eta laster argitaratuko da.

> En su primer proyecto discográfico, *Órbitas*, la guitarra actúa como eje gravitatorio que conecta y cohesiona distintas estéticas de música femenina



**José Angel Andrés, Vinaixa Gartzia eta Esti Lertxundi.**

## La pedagogía se desplaza a zonas rurales

*Itinerarios del patrimonio vasco* es el nombre del último proyecto organizado por Vinaixa Gartzia Ezeiza, alumna de canto lírico de nuestro centro y directora de un coro de Leitza, Jeiki Abesbatza. Se trata de una serie de conciertos pedagógicos en entornos rurales de Navarra que incluyen repertorio vasco, tanto folclórico como sacro, desde el siglo XV hasta hoy en día. Esta iniciativa ha ganado recientemente la ayuda económica de 5.000 euros por parte de la Fundación Caja Navarra, en el marco de su convocatoria cultural rural.

## Pedagogia landa eremuetara mugitzen da

*Euskal Ondarearen Ibilbideak* da Vinaixa Gartzia Ezeizak antolatutako proiektu berriaren izena. Vinaixa gure ikastegiko kantu lirikoko ikaslea eta Leitzako Jeiki Abesbatzako zuzendaria da. Ekimena Nafarroako landa inguruetako kontzertu didaktiko sorta bat da, XV. mendetik gaur arteko errepertorio folkloriko zein sakroarekin, eta Nafarroako Kutxa Fundazioaren 5.000 euroko dirulaguntza irabazi berri du, bere landa eremuko kultur deialdiaren baitan.

# Musikien es quién

En este número de la revista hemos descubierto sorprendentes similitudes entre una de nuestras docentes y un personaje del mundo de Hogwarts... ¿A que nuestra profesora de armonía se parece a la entrenadora de Quidditch?

Aldizkari honetako zenbakian, ezagunak egingo zaizkizuen bi pertsona hauen arteko antzekotasunak aurkitu ditugu...



**Maite Aseguinolaza**



**Rolanda Hooch (Harry Potter)**

# Aprende euskera ikasi

¿Os podéis creer que en *Duolingo* se puedan aprender idiomas ficticios como el klingon o el alto valyrio pero no euskera? No pasa nada, aquí estamos el equipo de *Musikenews* para arreglarlo. Mirad estas cinco parejas de palabras para que vuestra música suene también en euskera.

Sinetsi dezakezue *Duolingo*n klingona edo goi valyriarra bezalako fikziozko hizkuntzak ikas daitezkeela, baina euskara ez? *Musikenews*en hori konponduko dugu. Hemen bost hitz bikote dauzkazue, euskarazko musika terminoak ezagutzen joateko.

| | |
|---|---|
| clave de sol | sol ikurra |
| concierto | kontzertu |
| audición | entzunaldi |
| voz | ahots |
| melodía | doinua |



# MEDIATEKA

## JOSÉ ANTONIO MEDINA LABRADA

### Pianista, compositor y maestro entre dos mundos

La Mediateka de Musikene ha incorporado, por donación de su hija Mercedes Medina Domingo, un conjunto de dieciocho partituras editadas del compositor y pianista sevillano José Antonio Medina Labrada (1926–1983) figura central de la vida musical donostiarra durante casi tres décadas. La donación complementa los fondos manuscritos ya depositados en Eresbil desde 2022 y constituye la primera aproximación pública a una obra compositiva hasta hace poco prácticamente inédita.



### Pianista, konpositore eta maisu bi munduren artean

GORKA RUBIALES. Musikeneko Mediatekak hemezortzi partitura argitaratu jaso ditu dohaintzan: José Antonio Medina Labrada (1926–1983) konpositore eta pianistarenak, ia hiru hamarkadatan Donostiako musika-bizitzaren erdigunean egon zen sevillarrarenak. Dohaintza Mercedes Medina Domingok egin du, musikariaren alabak. Horrek osatzen ditu Eresbilen 2022tik gordailuan dauden eskuizkribu-funtsak, eta orain arteko ia ezezaguna zen konposizio-lanaren lehen hurbilketa publikoa eskaintzen du.

### Un sevillano que hizo de Donostia su ciudad

Medina Labrada nació en Sevilla en 1926 en un entorno familiar de intensa vocación artística: su padre, autor teatral; su madre, maestra; su tío, el pintor Fernando Labrada. Prodigio desde niño, ingresó en el Conservatorio de Sevilla a los nueve años y obtuvo el Premio Fin de Carrera a los quince. Renunció a una plaza de maestro de escuela – obtenido con el número seis en las oposiciones nacionales – para dedicarse plenamente a la música. Se formó en Barcelona con Frank Marshall, heredero directo de la escuela de Granados, y estudió composición con Joaquín Zamacois. En 1952 amplió estudios en la Academia Chigiana de Siena con Guido Agosti y en Nápoles con Paolo Denza. En 1954 logró la Medalla de Plata en el I Concurso Internacional Ars Nova de Barcelona (futuro Concurso María Canals), y al año siguiente ganó por oposición la Cátedra de Piano del Conservatorio Municipal de San Sebastián. Tenía veintinueve años. Aunque regresó en numerosas ocasiones para ofrecer recitales, actuar como solista con orquesta y visitar a su familia, Donostia se convirtió en su hogar.

### Sevillatik Donostiara: bere hiria aurkitu zuen gizona

Medina Labrada 1926an jaio zen Sevillan, arte-giroaren erdian: aita antzerkigilea, ama irakaslea, osaba Fernando Labrada margolari ospetsua. Bere dohaina goiztiar ageri zen: bederatzi urte zituela sartu zen Sevillako Kontserbatorioan eta hamabost zituela irabazi zuen karrerako sari nagusia. Eskola-maisu plazari uko egin zion —oposaketan seigarren sailkatu bazen ere— musika soilari ekin nahi ziolako. Bartzelonan Frank Marshallen ikasle bilakatu zen —Granadosen eskola zuzenean jaso zuena—, eta konposizioa Joaquín Zamacoisengandik ikasi zuen. 1952an Sienako Chigiana Akademian sakondu zuen Guido Agostirekin, eta Napolin Pablo Denzarekin. 1954an Zilarrezko Domina erdietsi zuen Bartzelonako I. Ars Nova Nazioarteko Lehiaketan —geroago Maria Canals izenez ezagutuko zenean—, eta hurrengo urtean, hogeita bederatzi urte zituela, Donostiako Udal Kontserbatorioko Piano Katedrara iritsi zen oposaketa bidez. Sevillara itzuli zen behin baino gehiagotan —errezitaldiak emateko, orkestrarekin solista gisa aritzeko eta familia ikusteko—, baina Donostia bere etxe bihurtu zen betiko.

## Tres décadas en el corazón de la música vasca

En Donostia fue todo a un tiempo: concertista, catedrático y gestor cultural. Durante los veintiocho años que estuvo al frente de su cátedra formó a generaciones de pianistas e impartió Historia de la Música, Estética y Formas Musicales, redactando él mismo los materiales didácticos ante la falta de libros adecuados. Como Secretario del Conservatorio (1960–1975) colaboró decisivamente en la obtención del rango superior del centro en 1977. Como concertista desplegó un repertorio amplísimo que iba desde los clavecinistas barrocos hasta autores contemporáneos, con especial compromiso con la música española y vasca: Albéniz, Granados, Falla, Mompou, Usandizaga, Garbizu o Escudero. Entre 1962 y 1966 fue pianista acompañante del Orfeón Donostiarra, participando en los estrenos de La Atlántida de Falla en Madrid, Granada, Santander, San Sebastián, Edimburgo y Lucerna. Grabó dos discos —Columbia, 1967; Edigsa, 1972— y realizó la transcripción para piano de la ópera *Zigor* de Escudero.

## Hiru hamarkada euskal musikaren bihotzean

Donostian eginkizun anitzen jabe bilakatu zen aldi berean: kontzertularia, irakaslea eta kultur eragilea. Katedraren buru emandako hogeita zortzi urteetan pianisten belaunaldiak prestatu zituen eta Musikaren Historia, Estetika eta Forma Musikalak irakatsi zituen, material didaktikoak berak idatzi behar izanik, liburu egokirik ez zegoelako. Kontserbatorioko Idazkari gisa (1960–1975), erabakigarri jokatu zuen zentroak 1977an goi-mailako izaera lor zezan. Kontzertulari gisa, errepertorio zabal eta ausartekin jardun zuen, barrokoko klabezinistengandik abiatuta musikagile garaikideetaraino, eta berariazko konpromiso biziarekin musika espainiar eta euskaldunaren aldean: Albéniz, Granados, Falla, Mompou, Usandizaga, Garbizu, Escudero. 1962tik 1966ra Donostiako Orfeoia pianoan lagundu zuen Fallaren La Atlántida obren estreinaldietan —Madrilen, Granadan, Santanderren, Donostian, Edinburgon eta Luzernen—. Bi disko grabatu zituen —Columbia (1967) eta Edigsa (1972)—, eta Escuderoren *Zigor* operaren piano-transkripzioa osatu zuen.

## Un compositor en la sombra

Pocos contemporáneos suyos conocían la labor compositiva de Labrada. Su producción —cerca de cincuenta partituras manuscritas— abarca desde sus piezas juveniles de los años cuarenta hasta obras de madurez fechadas poco antes de su muerte.

De coherencia estilística situada en el posromanticismo de raíz francesa (Fauré, Dukas) con reminiscencias brahmsianas y sólido dominio del contrapunto, su catálogo incluye obras pianísticas (*Piezas para piano I y II, Nocturno «Despedida»*), música de cámara (*Cuarteto de cuerda nº 1, op. 10; Sonata para flauta y piano*), canciones sobre textos de Lope de Vega, Machado y Gil Vicente, y la cantata *Alegrémonos en el nacimiento de Cristo*, estrenada póstumamente en 1984. Las *Invenciones atonales* (1972) evidencian su apertura hacia lenguajes contemporáneos. A la música se suma una obra poética recogida en cuatro volúmenes.

## Itzalean egon den konpositorea

Garaikide gutxik zekiten Medina konpositorea zenik ere. Berrogeita hamar eskuizkribu inguruk osatzen dute bere lana —berrogeiko hamarkadako gaztaroko piezen eta heriotzaren aurreko urteetako heldu-lanen artean—, eta guztietan nabari da estilo-koherentzia zorrotza: jatorri frantseseko posterromantizismoan erroturik (Fauré, Dukas), Brahmsen oihartzunekin eta kontrapuntuaren menderatze sendo batekin.

Katalogoa zabala eta askotarikoa da: piano-lanak (*I. eta II. pianorako Piezak, Nocturno «Despedida»*), ganbera-musika (*1. hari-kuartetoa, op. 10; Flauta eta pianorako sonata*), Lope de Vega, Machado eta Gil Vicenteren testuetarako abestiak, eta 1984an hil ostean estreinatu zen *Alegrémonos en el nacimiento de Cristo* kantata. *Inbentzio atonalek* (1972) agerian uzten dute lengoaia garaikideetara ere irekia zela. Musikari, gainera, lau liburukitan bildu zuen lan poetikoa gehitu behar zaio.

**Medina fue todo a un tiempo: concertista, catedrático y gestor cultural**

**Medina eginkizun anitzen jabe izan zen aldi berean: kontzertularia, irakaslea eta kultur eragilea**



## El Proyecto de Recuperación y los fondos en Musikene

La recuperación del legado es obra de Mercedes Medina Domingo, pianista formada por su padre y profesora durante cuatro décadas en el Conservatorio «Francisco Escudero» de San Sebastián. Desde su jubilación en 2023 ha concentrado su actividad en editar, grabar y difundir la música que su padre dejó manuscrita. En 2022, Merçè Domingo, viuda del compositor y madre de Mercedes, donó el archivo familiar a Eresbil–Archivo Vasco de la Música (fondo A212, accesible a investigadores). Las dieciocho partituras ahora en la Mediateka de Musikene, editadas por Mercedes e impresas en 2023 por Gráficas Bidasoa, cubren las principales facetas del catálogo: piano solo, piano a cuatro manos, cuarteto de cuerda, música de cámara con flauta y trompa, y voz con piano. En 2024 publicó además el disco *José Antonio Medina Labrada: Piezas para piano*, primer documento sonoro profesional de algunas de sus obras. El 23 de mayo de 2025, el Conservatorio «Francisco Escudero» celebró un acto de presentación con intervención del musicólogo Oskar Martínez de Gereñu, el rapsoda Ángel Marco y la interpretación pianística de Elena Cadierno y Mercedes Medina al piano. El 4 de diciembre de 2025, Musikene acogió un concierto-homenaje en el que intervinieron Pello Leiñena (director de Eresbil), Ángel Marco y, como exalumnos de Medina Labrada, Marta Zabaleta, Iñaki Salvador, Pedro José Rodríguez y Miren Etxaniz.

Las partituras están disponibles en libre acceso en la Mediateka de Musikene. Para consultar el fondo completo de manuscritos, puede accederse al inventario de Eresbil (fondo A212) a través de su página web.

## Berreskurapen-proiektua eta Musikeneko fondoak

Ondarearen berreskurapena Mercedes Medina Domingoren lan nekaezinaren emaitza da. Aitak hezitako pianista, lau hamarkadatan irakasleak «Francisco Escudero» Kontserbatorioan Donostian. 2023ko erretiroaz geroztik, aita zenaren eskuizkribuak editatzen, grabatzen eta zabaltzen eman du bere denbora osoa. 2022an, Merçè Domingok —konpositorearen alargunak eta Mercedesen amak— familia-artxiboa Eresbil–Euskal Musikaren Artxibora eman zuen dohaintzan (A212 fondoa, ikerlarientzat eskuragarri). Musikeneko Mediatekara heldu diren hemezortzi partiturak Mercedesek editatu ditu eta Gráficas Bidasoak inprimatu zituen 2023an; katalogoko alderdi nagusiak biltzen dituzte: piano solorako, lau eskutarako pianorako, hari-kuartetoarako, flauta eta tronparekin ganbera-musikarako, eta ahotsarako pianoarekin. 2024an *José Antonio Medina Labrada: Piezas para piano* diskoa argitaratu zuen, bere obren lehen soinu-dokumentu profesionala. 2025eko maiatzaren 23an, «Francisco Escudero» Kontserbatorioak aurkezpen-ekitaldi bat ospatu zuen, Oskar Martínez de Gereñu musikologoaren, Ángel Marco rapsodaren eta Elena Cadierno eta Mercedes Medina pianisten parte-hartzearekin. Eta 2025eko abenduaren 4an, Musikenek omenaldi-kontzertu bat eskaini zion: bertan jardun zuten Pello Leiñenak (Eresbileko zuzendaria), Ángel Marcok eta Medinaren ikasle ohiek: Marta Zabaleta, Iñaki Salvador, Pedro José Rodríguez eta Miren Etxaniz.

Partiturak Musikeneko Mediatekako sarbide librean daude eskuragarri. Eskuizkribuen funtso osoa kontsultatzeko, Eresbileko web-orrialdean sartu daiteke (A212 fondoa).



# TOCATA Y FUGA

**Eneko Goenaga, Director Gerente de Musikene / Zuzendari Gerentea**



**- Tu lugar secreto en San Sebastián.**
- Cuando vienes en coche por la A-8 (desde Zarautz), justo antes de llegar a la estación de servicio de Aritzeta, se llega al alto de una colina donde se abre una vista preciosa de Donostia y su bahía. Espectacular al atardecer.
**- ¿Carril bici o a pie?**
- Como aficionado al ciclismo que soy, bicicleta.
**- ¿Día de playa o tarde de lluvia?**
- Si bien lo de la tarde de lluvia con un buen café y libro tiene su punto, sin duda, un día de playa.
**- ¿Arzak o sidrería?**
- No he estado nunca en el Arzak, pero me gusta darme caprichos culinarios de vez en cuando.
**- Una película**
- *El secreto de sus ojos* (2009). Drama argentino ubicado en la época de la dictadura de Videla en Argentina, de los que te remueven, pero con algunos buenos puntazos de humor.
**- ¿Madrugar o trasnochar?**
- Por desgracia, me toca madrugar a diario, pero prefiero trasnochar.
**- ¿Con qué instrumento te identificas?**
- El acordeón, pero me encantaría haber aprendido también a tocar bien el piano.
**- Una pieza especial para un momento especial**
- Más que una pieza, un concierto. Buena Vista Social Club en directo desde el Carnegie Hall en Manhattan. Ibrahim Ferrer, Omara Portuondo o Barbarito Torres, y, por supuesto, Compay Segundo. Pura magia.
**- ¿J. S. Bach, Charlie Parker o The Beatles?**
- La *playlist* de la app de música de mi móvil es bastante variada. Comenzando por Bach, pasando por Queen, la banda de los Blues Brothers, Scorpions o Jamie Cullum y llegando a Zetak. Cada momento tiene su música.
**- ¿Tocar solo o acompañado?**
- La música, siempre mejor en compañía.
**- ¿Cómo será el músico de mañana?**
- Más allá de ser un profesional muy preparado, deberá estar conectado al entorno, ser buen comunicador y ser sensible a lo que esté ocurriendo en la sociedad.
**- ¿Qué es un alumno y un profesor en Musikene?**
- Alguien que está luchando por su sueño y quiere echar a volar, y quien debe ayudarle y guiarle en el camino.
**- ¿Qué te saca de tus casillas?**
- Pocas cosas, pero los que tengan pequeñines en casa sabrán que, a veces, tienen una capacidad especial para desesperar a uno.
**- ¿Y qué te alegra el día?**
- Llegar a casa y abrazar a esos mismos pequeñines.

**- Donostiako zure txoko sekretua.**
- A-8an autoz Donostiarantz zoazenean (Zarauztik), Aritzetako gasolindegira iritxi aurretik, muino bat dago eta bertatik Donostiaren eta badiaren bista bikain bat zabaltzen da. Iluntzean izugarria.
**- Bidegorrian edo oinez?**
- Txirrindularitzara zaletu naizen heinean, bizikleta.
**- Hondartza eguna edo arratsalde euritsua?**
- Arratsalde euritsu batek, kafe bat eta liburu on bat eskuetan, bere xarma badu ere, dudarik gabe, hondartza eguna.
**- Arzak edo sagardotegia?**
- Ez naiz inoiz Arzak-en egon, baina gustatzen zait noizean behin kapritxo kulinarioren bat neure buruari ematea.
**- Pelikula bat.**
- *El secreto de sus ojos* (2009). Videlaren diktaduraren urteetan kokatutako drama argentinarra, barrenera heltzen den horietakoa, baina zenbait humore puntu bikainekin.
**- Goiztiarra ala gau txoria?**
- Zoritxarrez, egunero goiztiarra izatea tokatzen zait, baina aukeran nahiago gau txori izan.
**- Zein musika-tresnarekin identifikatzen zara?**
- Eskusoinua, baina beti nahi izan dut pianoa ere ondo jotzen ikastea.
**- Momentu berezi baterako pieza bereziren bat.**
- Pieza bat baino gehiago, kontzertu bat. Buena Vista Social Club zuzenean Manhattango Carnegie Hall-etik. Ibrahim Ferrer, Omara Portuondo edo Barbarito Torres, eta jakina, Compay Segundo. Magia hutsa.
**- J. S. Bach, Charlie Parker edo The Beatles?**
- Nire mugikorreko musika-app-aren *playlist*-a nahiko anitza da. Bach-etik hasi, Queen, Blues Brothers-en banda, Scorpions edo JamieCullum-etik igaro eta Zetak-era iristen da. Une bakoitzak bere musika du.
**- Bakarrik ala taldean jo?**
- Musika, beti hobe taldean.
**- Nolakoa izango da biharamuneko musikaria?**
- Ondo prestatutako profesionala izateaz gain, ingurura konektatuta egon beharko du, komunikatzaile ona izan eta gizartean gertatzen ari denarekiko sentikorra.
**- Zer da Musikeneko ikasle bat? Eta irakasle bat?**
- Bere ametsa betetzeko borrokan, hegan egiteko gogoa duen norbait, eta bide horretan lagundu eta gida gisa jardun behar duena.
**- Zerk ateratzen zaitu zure onetik?**
- Oso gauza gutxik, baina etxean txikiak dituztenek jakingo dute, batzuetan bat bere onetik ateratzeko gaitasun berezia dutela.
**- ¿Eta zerk pozten dizu eguna?**
- Etxera iritxi eta etxeko txiki horiei, besarkada bat emateak.


Disenua eta maketazioa /
Diseño y maquetación:
Ander Siles &
Carolina Huang